

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 14 milioi euro jarriko dira 2019-2021 denboraldiko I+G arloko proiektu estrategikoetarako

*Laguntzaren helburua da mugikortasun iraunkorra eta adimentsua, energiaren biltegitratzea, medikuntza pertsonalizatua edo elikaduraren hobekuntza bezalako erronkak konpontzen dituzten proiektuak finantzatzea*

Asteazkena, 2018.eko azaroak 7

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusiari baimena emango zaio hainbat urtetarako gastua egiteko konpromisoa hartzeko, 2019-2021 denboraldian I+G arloko proiektu estrategikoak egiteko laguntzen 2019ko deialdia aurrez onartzeko. Ekimen horren helburua da sektore estrategikoetako enpresak mobilizatzea, haien eremuetako erronka espezifikoak konpon ditzaten; hala nola, ibilgailu adimentsuagoak, konektatuak eta ez kutsatzaileak lortzea; energia berriztagarria modu adimentsuan ekoiztea, biltegitratzea eta banatzea; gaixotasunen diagnostikoak eta tratamenduak hobetzea pertsona bakoitzaren genetika aintzat hartuta; elikagaien propietateak eta ekoizpena hobetzea; edo bizikaltatea eta lana hobetzea, besteak beste.

Deialdiaren alderdi orokorren artean nabarmendu behar dira proiektuak hiru urtetan zehar garatuko direla, enpresa-mota ezberdinen kontsorzioak eskatuko direla, eta Nafarroako zentro teknologikoen eta erakunde publikoen parte hartzeko gutxieneko portzentajeak ezarriko direla.

Deialdi honetan, zazpi erronka hautatu dira; alegia, funtsezkoak direnak Nafarroako Espezializazio Estrategiaren (S3) sektoreekin lotuta: 1-VOLTA: 0 emisioko, irismen luzeko eta teknologia aurreratuko ibilgailuak; 2-AERO: Energia berriztagarrien biltegitratzea haien erabilera optimizatzeko; 3-GEMA: Genomika eta medikuntza aurreratua; 4-ALPES: Elikadura pertsonalizatu iraunkorra, 5-IRIS: Adimen artifiziala eta robotikoa industria eta gizarterako; 6-IDEIA: Ideia disruptibo emergente aplikatuak; eta 7-SIBERIA: bioteknologiako baliabide berritzaileak energia, osasun-erronka, industria eta nekazaritzako elikagaietarako.

Deialdia aurreratu egin da proiektuak 2019an lehenbailehen has daitezkeen eta, era horretan, hiru urte ingurukoak izan daitezkeen. 14 milioi euroko konpromisoa 2019ko (4 milioi), 2020ko (6 milioi) eta 2021eko (4 milioi) aurrekontu-ekitaldien kargura ordainduko da.